



## II. ATALA BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA

### Udal Kultur Etxea (Basauri)

**Kultur Etxeko Arduradun Eragile lanpostu bat betetzeko, derrigorrezko 3. hizkuntza eskakizuna duena, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izengaien behin-betiko zerrenda onartzea.**

Lehendakariak, 2024ko otsailaren 6an, 174/2024 Ebazpena eman du. Ebazpen horrek honako hau dio:

*Lehenengoa:* Kultur Etxeko Arduradun Eragile lanpostu bat betetzeko, derrigorrezko 3. hizkuntza eskakizuna duenak, hautaketa-prozesuan onartutako eta baztertutako izengaien behin-betiko zerrenda onartzea.

#### ONARTUTAKO IZENGAIEN BEHIN-BETIKO ZERRENDA

NAN	Lehen abizena	Bigarren abizena	Izena	Behin behineko puntuazioa
*****43B	RECIO	CUEVAS	PAULA	100

*Bigarrena:* Hautaketa-prozesu honetarako kalifikazio-epaimahaia izendatzea. Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako Saileko diputatuaren martxoaren 8ko 1807/2023 Foru Aginduan eta bere ondorengo aldaketetan izendatutako pertsonak osatuko dute epaimahaia, Bizkaiko Foru Aldundiak toki-erakunde honekin egindako kudeaketa-gomendioari jarraiki:

- Presidentea:
  - Titularra: María Uribe Guerendiain.
  - Ordezkoa: Marta Vielba Postigo.
- Idazkaria:
  - Titularra: Encarnación Martínez Zamora.
  - Ordezkoa: María Elena Iturrizaga Larrabeiti.
- Batzorkideak:
  - Titularra: Oihana Ariznabarreta Bergareche.
  - Ordezkoa: Elixabete Elordi Asteguia.
  - Titularra: Joana Goitia Lopategui.
  - Ordezkoa: Aitor Ortega Ruiz.
  - Titularra: María Isabel Zarraga Buzeta.
  - Ordezkoa: Josu Martínez Serrano.
- IVAP:
  - Titularra: Manuel B. González Abrisqueta.
  - Ordezkoa: Pilar Goitia Salvatierra.

Epaimahaiko kideek ezin izango dute parte hartu, eta hautagaiek errefusatu ahal izango dituzte, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legearen 23. eta 24. artikuluetan aurreikusitako egoeraren bat gertatzen denean.

*Hirugarrena:* Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, Kultur Etxeko iragarki-oholean eta udalaren web orrian argitaratzeko agintzea.

*Laugarrena:* Onarpenak ez du esan nahi prozesua izapidetzen ari den bitartean baztertuak ez izateko eskubidea eskuratu denik, proba guztiak egin diren ala ez alde batera utzita, baldin eta, aurkeztutako datuak edo dokumentazioa egiaztatzearen ondorioz, hautapen-prozesuan onartzeko eta parte hartzeko eskatzen diren baldintza guztiak



betetzen ez dituela ikusten bada. Kasu horretan, epaimahai jarduleak baztertzeko proposamena egingo du, interesdunari entzun ondoren, Lehendakartzak dagokion ebazpena eman dezan.

*Bostgarrena:* Ebazpen honen aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Lehendakartzari, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean inpugnatu ahal izango da administrazioarekiko auzien jurisdikzioan, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratzen denetik hasita, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 112., 123. eta 124. artikuluetan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Basaurin, 2024ko otsailaren 6an. — Basauriko Udal Kultur Etxeko Lehendakaria, Berta Montes Beltrán